Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

62

344/2010 DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, Gasteiz Irratia-Radio Vitoria SA Sozietate Anonimo Publikoaren kapital-zabalkuntzan parte hartzeko baimena ematen diona Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca Ente Publikoari.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak honako hau ezartzen du 110. artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du indarra.

Sozietatearen betekizuna hotsak sortzea da eta, zuzen-zuzenean edo aldez aurretik grabaturik, emisio erradioelektrikoen, uhinen edo kableen bidez transmititzea, herritar guztiei helarazteko, helburua informazioa, kultura, artea, aisialdi betegarriak, mezu komertzialak eta publizitatea zabaltzea izanik, bai eta hezkuntza sistemei laguntzeko bitartekoa izatea ere, euskal kultura eta, batik bat, euskara sustatzeko eta garatzeko erakundeekin elkarlanean aritzea ere eta, halaber, aurrekoen osagarri diren ekintzak sustatzea.

Gasteiz Irratia-Radio Vitoria SA Sozietate Anonimo Publikoaren Ohiz Kanpoko Batzar Orokor Unibertsalak 2010eko azaroaren 24an erabaki zuen sozietatearen kapitala ehun eta hogeita bederatzi mila bederatziehun eta berrogeita hamazazpi euro eta hirurogeita hamabost zentimotan (129.957,75) zabaltzea. Horretarako, mila laurehun eta laurogeita bat (1.481) akzio berri jaulkiko dira, bakoitzak laurogeita zazpi euro eta hirurogeita hamabost (87,75) zentimoko balio nominala duela. Akzio horiek 16.931tik 18.411ra zenbatuko dira, modu korrelatiboan.

Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca Ente Publikoa sozietateko akzionista bakarra denez, bazkide gisa dituen eskubideez baliatzea dagokio. Akzio berriak eskuratu ahal izateko, baina, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena behar du, lehen paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

62

DECRETO 344/2010, de 21 de diciembre, por el que se autoriza al Ente Público Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca la toma de participación en una ampliación de capital de la Sociedad Anónima Pública Gasteiz Irratia / Radio Vitoria, S.A.

El artículo 110 del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, aprobado mediante el Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, dispone que la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización previa del Consejo de Gobierno, por decreto, a propuesta conjunta del consejero o consejera competente en materia de patrimonio y del consejero o consejera del departamento al que, directamente o a través de un ente instrumental, se encuentre o vaya a encontrarse vinculada la sociedad. El decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde la fecha en que se dicte.

Constituye el objeto social de la sociedad la producción y transmisión de imágenes y sonidos simultáneamente a través de las ondas o mediante cables destinados, mediata o inmediatamente al público en general, con fines informativos, culturales, artísticos, recreativos, comerciales y publicitarios, así como medio de cooperación con sistemas educativos y de fomento y difusión de la cultura vasca y en especial al fomento y desarrollo del euskera y cuantas actividades sean anejas o complementarias de las anteriores.

La Junta General Universal y Extraordinaria de la Sociedad Anónima Pública Gasteiz Irratia / Radio Vitoria, S.A., en fecha 24 de noviembre de 2010, adoptó el Acuerdo de ampliación de su capital social en ciento veintinueve mil novecientos cincuenta y siete euros con setenta y cinco céntimos (129.957,75) mediante la emisión de mil cuatrocientos ochenta y un (1.481) nuevas acciones de ochenta y siete euros con setenta y cinco céntimos (87,75) de valor nominal, numeradas correlativamente del n.º 16.931 al 18.411, ambos inclusive.

Siendo accionista único de la misma, el Ente Público Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca, le corresponde, por tanto, el ejercicio de los derechos de socio en tal sociedad, requiriendo, de conformidad a lo expuesto en el primer párrafo, de autorización del Consejo de Gobierno para proceder a la adquisición de las nuevas acciones.

Azkenik, Lehendakariak maiatzaren 8an eman zuen 4/2009 Dekretuaren 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Irrati Telebista / Radiotelevisión Vasca Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa Kultura Sailari atxikita dago.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko abenduaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Baimena ematen zaio Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca Ente Publikoari Gasteiz Irratia / Radio Vitoria SA Sozietate Anonimo Publikoaren kapital-zabalkuntzan parte-hartzeko. Zabalkuntza hori ehun eta hogeita bederatzi mila bederatziehun eta berrogeita hamazazpi euro eta hirurogeita hamabost zentimokoa (129.957,75) izango da. Zabalkuntza mila laurehun eta laurogeita bat (1.481) akzio berri jaulkiz bideratuko da, bakoitzak laurogeita zazpi euro eta hirurogeita hamabost (87,75) zentimoko balio nominala duela.

Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca Ente Publikoak zabalkuntzaren % 100ean parte hartuko du. Hortaz, aipatutako kapital-zabalkuntzaren ondoren, Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca Ente Publikoak honako parte-hartzea izango du: milioi bat seiehun eta hamabost mila bostehun eta hirurogeita bost euro eta hogeita bost zentimo (1.615.565,25), hamazortzi mila laurehun eta hamaika (18.411) akziotan banatuta, bakoitzak laurogeita zazpi euro eta hirurogeita hamabost zentimoko (87,75) balioa duela. Hau da, sozietatearen etorkizuneko kapitalaren % 100ari dagokion parte-hartzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 21ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Finalmente, conforme a lo dispuesto en el artículo 15.2 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, el Ente Público de Derecho Privado Euskal Irrati Telebista / Radiotelevisión Vasca se encuentra adscrito al Departamento de Cultura.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda y de la Consejera de Cultura, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 21 de diciembre de 2010,

DISPONGO:

Artículo único.– Autorizar al Ente Público Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca la toma de participación en la ampliación de capital de la Sociedad Anónima Pública Gasteiz Irratia / Radio Vitoria, S.A., en ciento veintinueve mil novecientos cincuenta y siete euros con setenta y cinco céntimos (129.957,75) mediante la emisión de mil cuatrocientas ochenta y una (1.481) nuevas acciones de ochenta y siete euros con setenta y cinco céntimos (87,75) de valor nominal.

La toma de participación del Ente Público Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca es equivalente al 100% de la ampliación a realizar, con lo que, tras la citada ampliación de capital, la participación del Ente Público Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca en dicha sociedad será de un millón seiscientos quince mil quinientos sesenta y cinco euros con veinticinco céntimos (1.615.565,25) distribuidos en dieciocho mil cuatrocientas once (18.411) acciones iguales de ochenta y siete euros y setenta y cinco céntimos (87,75) de valor cada una, equivalente al 100% de su futuro capital social.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de diciembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.